



# Ordezlagunea obretan

Azken egunetan akats ugari egon dira Ordezlagunearen bidez egin diren esleipenetan (lanpostuak ez agertzea, lanaldiak gaizki azaltzea, agertu direnak ez existitzea...). **STEILAS**ek akats hauen berri jakin bezain laster administrazioari helarazi dizkio eta konponbidea lehenbailehen aurkitzea exijitu dio.

Hainbat kasutan kaltetuak izan diren langileei uko egiteko aukera eman zaie. Hala ere, izandako akatsengatik kaltetutako langileei erreklamazioa jartzea gomendatzen diegu langileen kudeaketa zerbitzuan. Bitartean administrazioari ahal den azkarren sistemak hobekien funtzionatzeko urratsak eman ditzala exijitzen jarraituko dugu, baita langileei sortutako kalteak lehenbailehen erreparatzea ere.

Bestalde, dekretua argitaratu gabe sistema berri hau martxan jarri izana salatu nahi dugu. Araudi argirik gabeko sistema berri honek ez du langileen eskubideak bermatzeko aukerarik ematen; alde batetik, langileei prozesuaren baldintzak ez dizkietelako ezagutarazten eta, bestetik, sisteman ematen diren akatsak konpontzeko araudia ere zehaztu gabe dagoelako.

Administrazioak ematen duen zerbitzua hobetu dezan exijitzen dugu. Abuztutik hona langileek Lurralde Ordezkaritzetara deitzen jardun arren, gehienetan telefono deirik ez dute hartzen edota erantzun eta argibide gutxiegi ematen ditzuzte. Ordezlagunean izandako arazoak ere ulergaitzak dira, maiatzetik hona sistema hobetzeko denbora nahikoa izan dutelako. Bistakoa da administrazioko langileak lanez lepo daudela, eta beste behin ere, administrazioan baliabide gehiago jartzea exijitzen dugu.

**HEZKUNTZA PUBLIKOAK**

**EZ DU HORRELAKO**

**JARDUNBIDERIK MEREZI!**

**KONPONBIDEA ORAIN!**



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus